

**ORAIN 80 URTE, EUSKADITIK MUNDURA**

2016-12-13 Vitoria-Gasteiz 13-12-2016

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintariok, jaun andreok, arratsalde on.

Lehen hitza antolatzaileen lana eskertzeko izango da. Urtean zehar, hainbat ekitaldi antolatu dituzue Agirre Lehendakaria eta bere Jaurlaritza gogoratzeko, omentzeko eta aitortzeko. Egia da, 80 urte pasa dira baina, lehen oinarri haien sendotasunari esker, gure Erakundetzeak aurrera jarraitzen du eta Euskadik baikortasunez begiratzen dio etorkizunari. Europan eta mundu zabalean berezko lekua irabazteko lanean dihardugu.

Hace 80 años, el primer Gobierno Vasco y el Lehendakari Agirre pusieron en marcha la institucionalización de la Euskadi que hoy conocemos. Hemos avanzado gracias al Autogobierno y nuestro mejor homenaje es seguir avanzando en la construcción de una sociedad vasca más justa y solidaria; un País con valores, más competitivo y abierto, que trabaja unido por ganar su espacio en el mundo.

Bigarren hitza, mundu zabalean bizi diren euskaldun guztiei zuzentzeko. Zuen hitz hunkigarriak entzun ditugu eta zuen konpromisoa eskertu nahi dugu. Egia da, 60 urte pasa dira Agirre Lehendakariak lehen Euskal Mundu Batzarra antolatu zuenetik. Bidea egiten jarraitu dugu, lehengo urtean Gasteizen beste Batzar bat antolatu genuen “diasporizatu” lelopean.

Argi dago euskal sarea zabaldu egin dela. Egun, 25 herrialdetan ia 200 euskal komunitate dago. Komunitate horietako kideok “nazionalitate bikoitza” izateari eutsi diozue: euskaldunak sentitzen eta izaten jarraituz; gure ohiturak, kultura eta hizkuntza gordetzen eta zabaltzen saiatuz. Zuei esker, gaur Euskadi-Basque Country ezaguna eta aitortua da mundu zabalean.

Hemos escuchado la voz de la comunidad vasca en el mundo. Nos emocionan vuestras palabras. Sois personas comprometidas con nuestro Pueblo y, superando las distancias, mantenéis la “doble nacionalidad” y reforzáis nuestra presencia en el mundo global. Este es el futuro de Euskadi – Basque Country, un Pueblo que a lo largo de la historia ha demostrado capacidad para superar los retos y aprovechar las oportunidades. Este es el espíritu de ambición, unidad, trabajo en equipo y compromiso, que nos fortalece y nos da confianza para seguir avanzando.

Agirre Lehendakaria dugu gogoan eta bere hitzak erabiliko ditut zuen aurrean:

“Sendotu daiguzan geure oiturak, geure izkuntza eta euskalduntasuna. Itz baten esateko, indartu daigun geure nortasuna.”

Hemos escuchado al Lehendakari Agirre y el mejor homenaje es dar continuidad a sus valores y compromiso, a su legado de construcción social y construcción nacional, a la institucionalización de Euskadi:

- Fortalecer nuestras costumbres, nuestra cultura y lengua.
- Mostrar nuestro compromiso con Euskadi-Basque Country a lo largo y ancho del mundo.

En una palabra, reforzar la personalidad y el alma del Pueblo Vasco en nuestro territorio, que es el mundo.

Eskerrik asko munduko euskaldun guztioi. Elkarlanaren bidez jarraitu behar dugu euskal nortasuna sendotzen, indartzen eta zabaltzen.

Eskerrik asko!